


“LIBURU  
GAZTEA”

Literatura Saria  
2003-2004



*Liburu gaztea eta  
Idazle gaztea  
sariak emateko  
ekitaldia  
2003-2004*

**2004ko ekainaren 3an, 11:30etan  
Gipuzkoako Foru Aldundian**

**Antolatzaile: Galtzagorri Elkartea  
Babesle: Gipuzkoako Foru Aldundia**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

# *Liburu gaztea* *2003-2004*

## *Aurkezpena*

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Galtzagorri Elkartearekin lankidetzan, *Liburu Gaztea* literatura sariarentzako deialdia zabaldu zuen 2000-2001 ikasturtearen hasieran irakurtzaletasuna sustatzeko asmotan. *Liburu Gaztea* programak euskal literaturan urtero burutzen diren beste sarien artean (Euskadi sariak, Lizardi, Labaien...) bat gehiago izan nahi du, baina berezitasun nabarmen eta garrantzitsu batekin: DBHko ikasleak izango direla epaimahaikide gisa urtero bi idazle sarituko dituztenak. Haur eta Gazte Literaturari dagozkion sari desberdinetan beti helduek daukate azken hitza, sariketa honen bidez berriz gazteei zuzendurikoa den literatura horretan beraien iritziak eta hausnarketak entzuteko aukera eskaini nahi da eta hori erabiliz beraien motibazioa landu eta haiengandik ikasteko aukera aprobetxatu. Azken urteko produkzioa sarituko duen literatur sari honek ondorengo helburuak ditu:

### ➤ *Helburuak*

- Euskal Literaturaren produkzio berriena gazteengana hurbiltzea.
- Gazteen interesak, iritziak, literatur gustuak ezagutzea.
- Irakasleei literatur orientazioa eskaintzea.

- Ikasleengan irakurtzaletasuna landu eta irizpide literarioak sortzea.
- Idazleei irakurle gazteen ikuspegia hurbildu eta hauek emandako sari bat eskuratzearen ohorea eskaintzea.
- Euskal Herriko ikastetxeetan irakurketa aldetik erabiltzen diren prozedura desberdinak ezagutzea eta hauek lantzeko tresna berri bat eskaintzea.

➤ *Jasotzaileak*

Gipuzkoako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan B eta D ereduak dituzten ikastetxe guztiei luzatu zitzaizen egitasmoan partehartzeko gonbitea (119 ikastetxe guztira). Orientatzaile batek banaka bisitatu zituen ikastetxe guztiak egitasmoaren nondik norakoak azaltzen eta ikastetxera programa egokitzeko biderik aproposenak zein izan zitezkeen aztertzen. Honen emaitza ondorengoa izan zen :

<b>2003-2004 ikasturtea</b>	
Ikastetxe kopurua	46
Bozketan parte hartutako ikasleak	4.949

➤ *Prozedura*

Galtzagorri Elkarteak izendatutako hautaketa batzordeak 2002an adin tarte honetarako argitaratutako liburu guztien irakurketa egin zuen . Irakurketa zerrendan jatorriz euskaraz sortutako liburuak nahiz itzulitakoak sartu ziren baina zerrendatik kanpo utzi ziren berrargitarapenak. Irakurketa horretatik **8 izenburuko zerrenda** aukeratu zuen (ikus eranskinean zerrenda osoa). Adin talde bakoitzeko 4 liburu izanik, hau da, 12-14 urte bitarteko ikasleei

bideratutako 4 eta 14-16 urtekoentzako beste hainbeste. Aitu batzordea pertsona hauek osatu zuten:

- *Miguel Asiain Iarnotz*  
Irakaslea eta Galtzagorri Elkarteko lehendakaria
- *Rosario Alza Eñeterreaga*  
Irakaslea
- *Leticia Grandes Mateos*  
Irakaslea
- *Koldo Biguri*  
Itzultzailea eta EIZIEko kidea
- *Leire Diaz de Gereñu*  
Euskal Filologoa eta EHU-n bekaduna
- *Miel Anjel Elustondo*  
Idazlea eta argazkilaria
- *Leire Ugalde Lujanbio*  
Pedagogoa, psikopedagogoa eta Galtzagorri Elkarteko idazkaria

## Oinarriak

1. Ikastetxean, parte hartzen duten ikasgela guztiek dute botoa emateko aukera.
2. Talde bakoitzak dagozkion 4 liburua irakurtzen ditu.
3. Ikasle bakoitzak irakurri dituen 4 liburuen artean gehien gustatu zaiona aukeratu dute. Horri emango diote botoa. Irakasleak egiten du ikasgela bakoitzari dagokion boto zenbaketa eta Galtzagorrira igortzen du.
4. Emandako puntuaketa Galtzagorri Elkarteari iritsarazten zaio, jaso duten **bozkatze orria** behar bezala betez.
5. Jasotzen diren bozkatze orrien artean **puntu bilketa** egiten da, **bozkatuena izan den liburua** finkatzeko.
6. *Liburu Gaztea* sarian parte hartu duen ikastetxe bakoitzak epaimahaikide izan dela ziurtatzen duen agiria jasoko du. Horretaz gain, parte hartu duten eskola guztien artean **Parisera 5 egunetako bidaia bat** 30 ikaslerentzat (gehi bi irakasle) eta **50 liburuko 2 sari** zozketatuko dira.
7. Bozkatuen izan diren liburuen idazleek aipamen berezia eskuratuko dute, horretarako **2003ko ekainaren 3an goizeko 11:30etan Gipuzkoako Foru Aldundian** egingo den sari banaketa ekitaldian.
8. Epaimahaikide gazteek bidaliko dituzten bozkatze orriak jasotzeko **epea**, 2003 urteko **maiatzaren 15a** izan da. Data horren ondoren jasotako orriak ez dira kontutan hartu eta ikastetxe horiek ez dute parte hartuko sarien zozketan.
9. *Liburu Gaztea* sariaren irabazlea **2003ko ekainaren 3an goizeko 11:30etan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den prentsaurrekoan** ezagutaraziko da, sari banaketa ekitaldian.

**Liburu bozkatuenak** irakurleek beraiek osatutako **epaimahaiak** emandako sariaren ohorea izango du.

*Eranskina*  
**Liburu Gaztea 2003-2004**  
*Aukeratutako liburuek jasotako boto kopuruak*

<b>DBH 1-2 (1. zikloa)</b>			
<b>Izenburua</b>	<b>Egilea</b>	<b>Argitaletxea</b>	<b>Puntuak</b>
<i>Pertseo eta Medusaren burua</i>	J.M. Olaizolaren egokitzapena	Elkar	647
<i>Gerra da leku honen izena</i>	Jordi Sierra I Fabra	Elkar	747
<i>Ilbetea Dilindan</i>	Jon Suarez	Pamiela	296
<i>Egiaren jokoa</i>	Annika Thor	Elkar	<b>1.081</b>

<b>DBH 3-4 (2. zikloa)</b>			
<b>Izenburua</b>	<b>Egilea</b>	<b>Argitaletxea</b>	<b>Puntuak</b>
<i>Xibaren malkoak</i>	César Mallorqui	Edebé-Giltza	<b>1331</b>
<i>Krokodiloa ohe azpian</i>	Mariasun Landa	Alberdania	381
<i>Inesaren Balada</i>	Hasier Etxeberria	Elkar	298
<i>Mila gau eta bat gehiago</i>	Patxi Zubizarretaren egokitzapena	Erein	168

## *Liburu gaztea 2003-2004*

### *Bozketan parte hartu duten eskolak*

<b>Zk.</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Herria</b>
1.	Aita Larramendi Ikastola	Andoain
2.	La Salle- Berrozpe	Andoain
3.	Arrasate-Aretxabaleta BHI	Arrasate
4.	San Viator Haundi	Arrasate
5.	Ikasberri	Azpeitia
6.	Loinazpe BHI	Beasain
7.	Aranzadi Ikastola	Bergara
8.	Peñaflorida-Usandizaga BHI	Donostia
9.	The English School	Donostia
10.	La Asuncion HLBHI	Donostia
11.	Axular Lizeoa	Donostia
12.	Belen Ikastetxea	Donostia
13.	Ekintza Ikastola	Donostia
14.	Manuel Larramendi Ikastetxea	Donostia
15.	Arantzazuko Gure Ama Ikastetxea	Donostia
16.	San Luis La Salle	Donostia
17.	Zubiri Manteo BHI	Donostia
18.	Barandiaran Lizeoa	Donostia
19.	Itzio	Eibar
20.	Mogel Isasi BHI	Eibar
21.	N.S.D.Azitain-La Salle	Eibar
22.	Elgoibar Ikastola	Elgoibar
23.	Langaitz	Errenteria
24.	Arizmendi (Almen) Ikastola	Eskoriatza
25.	Urumea BHI	Hernani
26.	Talaia BH Institutua	Hondarribia
27.	San Jose Ikastetxea	Hondarribia
28.	Dunboa	Irun
29.	Plaiiandi BHI	Irun
30.	Toki Alai BHI	Irun

<b>Zk.</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Herria</b>
31.	Landaberri BHI	Lasarte-Oria
32.	Olazabal Institutua	Legazpi
33.	Haztegi Ikastola	Legazpi
34.	Mutrikuko Institutua	Mutriku
35.	Hurtzaro Ikastola	Oiartzun
36.	Txantxiku Ikastola	Oñati
37.	Larrañaga RM de Azkue	Oñati
38.	Jakintza Ikastola	Ordizia
39.	Pasaia-Lezo Lizeoa	Pasaia
40.	Egape Ikastola BHI	Urnieta
41.	Jose Mari Iparragirre BHI	Urretxu
42.	La Salle San Jose	Zarautz
43.	Lizardi Institutua	Zarautz
44.	Antoniano Ikastetxea	Zarautz
45.	Salbatore Mitxelena Ikastola	Zarautz
46.	La Salle Legazpi	Zumarraga

<i>Zozketa bidezko irabazleak</i>			
	<b>Saria</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Herria</b>
1.	Pariserako bidaia	Aranzadi Ikastola	Bergara
2.	Liburu sorta	Antoniano Ikastetxea	Zarautz
3.	Liburu sorta	Aita Larramendi	Andoain

# idazLe gaztea

## Oinarriak

### Norentzat

Lehiaketan parte hartzerik izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan ari diren ikasleek.

### Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poematan, gehienez 90 lerroko lanak.

### Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; B kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

### Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 5na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2004ko otsailaren 3an amaituko da.

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-deiturak, ikastetxearen izena eta ikasmaila ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordeko dira sarien erabakia aditzera eman arte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira helbide honetara:

[idazlegaztea@idazlegaztea.org](mailto:idazlegaztea@idazlegaztea.org)

### Hautapena

Jasotako lan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkartearen lau ordezkariak.

### Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak idazle gaztearen web orrian agertuko dira (<http://www.idazlegaztea.org>), 2004ko martxoaren 4tik aurrera.

Webean sartzen diren irakurleek botoa emanaz aukeratuko dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2004ko maiatzaren 15a bitartean.

# idazLe gaztea

## Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

Irabazleen lanak Galtzagorriko webean argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Saridunak 2004ko ekainaren 3an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saioan.

# idazLe gaztea

## Aurkeztutako lanak

Saila	Kategoria	Aurkeztutako lanak	Hautatutako lanak
Narrazio laburrak	A	21	8
	B	34	10
Poesia	A	3	0
	B	35	14
Guztira		93	32

# idazLe gaztea

## Hautatutako eta saritutako lanen zerrenda

idazle gaztea A kategoria			
Narrazioa			
Saria	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
1. saria	Manzisor Iztueta	Zapata baten maitasuna	Andoain
2. saria	Huerta Leunda	bidairik ederrena	Oianguren
3. saria	Amaia Martinez	garrantzia	Oianguren
	Ruth Aguirrezabalaga		Antoniano Ikastetxea
	Irati Elizalde Gonzalez	Ohe azpiko hori	Donostia
	Claudia Moreira	Maitasuna	Ordizia
	Eztitxu Mujika	Udaberriko Ametsa	Oianguren BHI
	Natale Sánchez Gonzalez		Oianguren BHI Ordizia

# idazLe gaztea

idazle gaztea B kategoria			
Narrazioa			
Saria	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
1. saria	Joana Azketa Matxain	Iluntasunaren gatibu	Oianguren
2. saria	Lohitzune Puy Azurmendi	Beti elkarrekin	Haurtzaro Ikastola Oiartzun
3. saria	Garazi Azurmendi Apalategi	Iluntasunean murgildurik	Oianguren Ordizia
	Iraia Errandonea	Paula	Haurtzaro Ikastola Oiartzun
	Joseba Badiola Prieto	Zuhaitzaren ametsa	Pasaia-Lezo Lizeoa Pasaia
	Ane Etxeberria	Tristuraz beteriko kuadernotxo	Urola Ikastola Azpeitia
	Olaia Susperregi	Sua bezain gorria, baina maitasuna al da?	Haurtzaro Ikastola Oiartzun
	Aitziber Zabalegi	Mendekuak zeharo itsuturik	Haurtzaro Ikastola Oiartzun
	Jon del Olmo	Animoaren dezimoa	Haurtzaro Ikastola Oiartzun
	Garazi Ansa	Ezin bizi zu barik	Haurtzaro Ikastola oiartzun

# idazLe gaztea

idazle gaztea A kategoria

**Poesia**

Kategoria honetan ez da saririk eman

# idazLe gaztea

idazle gaztea B kategoria			
Poesia			
Saria	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
<b>1. saria</b>	<b>Naiara Izagirre Uranga</b>		<b>Urola Ikastola Azpeitia</b>
	<b>Olatz Mitxelena Larreta</b>		<b>Haurtzaro Ikastola Oiartzun</b>
	<b>Garazi Ansa Arbelaitz</b>		<b>Haurtzaro Ikastola Oiartzun</b>
		Harresia	Antoniano Zarautz
	Alazne	Bihotzaren leialtasuna, bide ertzean galdu	Oiartzun
	Joanne Fernández	Amatxo maitia/Bihotza/Ezer	Antoniano Ikastetxea
	Unai Barrenetxea		Haurtzaro Ikastola Oiartzun
		Faltsua	Haurtzaro Ikastola
	Eider Carabias	tristura	Haurtzaro Ikastola
	Aintzane Ado		Haurtzaro Ikastola Oiartzun
	Puy	Ez da arazorik	Oiartzun
	Eneritz Toledo	zaitudalakoan	Haurtzaro Ikastola
	Mikel Arbelaitz	Zure printzea izan arte	Oiartzun
	Irati Izagirre		Haurtzaro Ikastola Oiartzun